

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko uztailaren 08tik uztailaren 14rako astea.**

## I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2023/07/12**

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 29koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira VII. hitzarmen kolektiboaren 2022. urterako behin betiko soldata-taulak eta 2023. urterako hasierako soldata-taulak, higiezinaren kudeaketarako eta bitartekaritzarako enpresetarako. **16197 xedapena- 4 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2023ko ekainaren 30eko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita ikus-entzunezkoen ekoizpenen sektorerako prestakuntzako estatu-akordio sektoriala. **16199 xedapena- 6 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 30ekoa, Laneko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita Gizarteratzea Kudeatzeko Elkartearen III. hitzarmen kolektiboa. **16200 xedapena- 44 or.**

**2023/07/14**

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko uztailaren 3koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita turroi- eta mazapan-industrietarako hitzarmen kolektiboko 2023. urterako soldata-berrikuspenari eta soldata-taulei buruzko akordioa. **16365 xedapena- 4 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko uztailaren 3koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita zementuaren eratorrien sektoreko VIII. hitzarmen kolektiboa. **16366 xedapena- 80 or.**

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko uztailaren 3koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira funts publikoekin guztiz edo partzialki sostengatutako irakaskuntza pribatuko enpresen VII. hitzarmen kolektiboko 2022. urterako eta 2023. urterako soldata-eta-lanak. 16368 xedapena- 34 or.
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Hitzarmenak.** Ebazpena, 2023ko uztailaren 11koa, Landa Garapenerako, Berrikuntzarako eta Nekazaritza-elikadurarako prestakuntzako Zuzendaritza Nagusiak emana, zeinaren bidez argitaratzen baita Ainia Zentro Teknologikoarekiko Hitzarmena; bioekonomian *startup* eta balio-kate berritzaileak garatzeko lan egiten du zentro teknologiko horrek. 16369 xedapena- 8 or.

## II.- XEDAPEN OROKORRAK:

### E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

**2023/07/10**

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 23koa, Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak emana, zeinaren bidez zuzentzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan 2023. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziei buruzko 2023ko urtarilaren 24ko Ebazpenean jasotako Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarea aldatzen duen 2023ko ekainaren 12ko Ebazpeneko erroreak. 15915 xedapena- 2 or.

**2023/07/11**

- **KONSTITUZIO AUZITEGIA. Konstituzio Auzitegia.** Akordioa, 2023ko uztailaren 6koa, Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurarena, zeinaren bidez ezartzen baita konstituzio-prozesuetako egun baliogabeen erregimena. 16065 xedapena- 2 or.

**2023/07/12**

- **GARRAIOETAKO, MUGIKORTASUNEKO ETA HIRI AGENDA KO MINISTERIOA Trenbide Zirkulazioko Erregelamendua.** 606/2023 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita Trenbide Zirkulazioko Erregelamendua onesten duen uztailaren 17ko 664/2015 Errege Dekretua. 16156 xedapena- 8 or.

- **PRESIDENTENTZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Enplegua.** 608/2023 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, zeinaren bidez garatzen baita Enplegua Egonkortzeko eta Malgutzeko RED Mekanismoa. 16158 xedapena- 30 or.
- **PRESIDENTENTZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Titulartasun Errealen Erregistro Zentrala.** 609/2023 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, zeinaren bidez Titulartasun Errealen Erregistro Zentrala sortzen eta haren Erregelamendua onesten baita. 16159 xedapena- 17 or.

## 2023/07/13

- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Jabetza intelektual.** 611/2023 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, zeinaren bidez onesten baita Jabetza Intelektualaren Erregistroaren Erregelamendua. 16215 xedapena- 20 or.

## 2023/07/14

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** Ebazpena, 2023ko uztailaren 6koa, Idazkariordetzak emana, zeinaren bidez zehazten baitira egiaztatze-kode segurua jarduketa administratibo automatizaturako sinadura elektronikoko sistema gisa erabiltzeko kasuak. 16290 xedapena- 4 or.
- **OSASUN MINISTERIOA. Medikamentuak.** SND/778/2023 Agindua, uztailaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira ekoizpen industrialeko alergenoei oinarritutako medikamentuak eta gizakiekin eta animaliekin erabiltzeko alergenoei oinarritutako medikamentu-prestakinak baimentzearen alderdi batzuk. 16291 xedapena- 11 or.

## E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

## 2023/07/11

- **EUSKO LEGEBILTZARRA. AKORDIOA,** 2023ko ekainaren 27koa, Eusko Legebiltzarreko Mahaiarena, Eusko Legebiltzarraren barneko informazio sistema sortu eta erregulatzeko den Araua argitaratzen duena. 3311e xedapena- 10 or.

**2023/07/12**

- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** 97/2023 DEKRETUA, ekainaren 27koa, erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duena. **3324e xedapena- 8 or.**

**E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)**

**B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2023/07/10**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 78/2023 FORU DEKRETUA, uztailaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-betebehar Formalei buruzko Araudia, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergaren Araudia eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Kudeaketari buruzko Araudia. **I-806 xedapena- 17 or.**

**2023/07/12**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 274/2023 FORU AGINDUA, uztailaren 3koa. Honen bidez, honako foru agindu hauek aldatzen dira: Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1482/2020 Foru Agindua, irailaren 9koa, software bermatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen; Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1578/2021 Foru Agindua, irailaren 24koa, zeinaren bidez, pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen diren, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1582/2021 Foru Agindua, irailaren 24koa, zeinaren bidez, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen diren, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik. **I-815 xedapena- 9 or.**

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

**2023/07/13**

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2023/1442 Erregelamendua (EB), 2023ko uztailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita elikagaiekin kontaktuan egongo diren materialei eta objektu plastikoei buruzko 10/2011 Erregelamenduaren (EB) I. eranskina, substantzien baimenei buruzko aldaketei eta substantzia berriak gehitzeari dagokienez. **L 177/45 xedapena- 14 or.**

**2023/07/14**

- **ERREGELAMENDUAK.** Batzordearen 2023/1451 Exekuzio Erregelamendua (EB), 2023ko uztailaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2020/2002 Exekuzio Erregelamendua (EB), gaixotasunak jakinarazteari eta estatu kideek gaixotasunak ezinbestean eta borondatez desagerrarazteko programen txostenak onesteko eta bidaltzeko eta gaixotasunetik libre egotearen egoera aintzatesteko eskaeretan aurkeztu beharreko informazioari dagokienez. **L 179/48 xedapena- 9 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2  
HENA0, 26 - BILBAO